

Soka gainean



Gaur oso egun berezia da. Gaur zirkua heldu da herrira. Umeak oso pozik daude. Umek Indiako tigreak, Afrikako elefanteak eta lehoiak ikusiko dituzte.

Arratsaldeko seiak dira. Lehen funtzioa da eta horregatik jende asko dago zirkuko atearen aurrean. Ilada handia dago.

—Itxaron hemen. Iladara noa —esaten du amak.

—Jende asko, ezta? —dio Leirek.

—Bai. Jendeari zirkua asko gustatzen zaio —esaten du Gontzalek.

Funtzioa hasi da. Aurkezleak ongi etorria ematen du eta zirkuko pentsonaiak aurkezten ditu: pailazoak, trapeziolaria, magoa eta abar.

— Jaun-andreoak, neska-mutilok, ongi etorriak! —dio aurkezleak.



Pistaren erdian bezatzailea dago lehoi eta tigreekin. Jendea ikaratuta dago.

—Nongoak dira tigreak —galdetzen du Leirek.

—Indiakoak —erantzuten du amak.

—Ni beldur naiz — dio Gontzalek.

Trapezioianiaren txanda da orain. Oso ona da eta bere lana oso arriskutsua. Jendea aho-zabalik dago.

—Oooh! Harrigarria da.

—Eta ez dago sarerik —dio jendeak. Baina, rist!, trapeziolania irristatu egin da eta jirafaren gainera erori da.

—O! Nolako kolpea! —dio jendeak.

—Ederki! —esaten dute beste batzuek.

SOKA GAINEAN

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Nolako eguna da gaur?

.....

2.- Nora heldu da gaur zirkua?

.....

3.- Nongoak dira tigreak? Eta elefanteak?

.....

4.- Zergaitik dago jende asko zirkuko ate aurrean?

.....

5.- Zer ematen du aurkezleak?

.....

6.- Norekin dago bezatzailea pistaren erdian?

.....

7.- Nolakoa da trapeziolariaren lana?

.....

8.- Nola dago jendea?

.....

9.- Zer gertatu zaio trapeziolariari?

.....

10.-Nora erori da trapeziolaria?

.....